



***GOIERRI BARNETIK* GOBERNANTZA-SISTEMA BERRIA EGITURATZEKO HITZARMENA**

GOIERRI BARNETIK GOBERNANTZA-SISTEMA BERRIA EGITURATZEKO HITZARMENA

ELKARTU DIRA:

Eider Mendoza Larrañaga andrea, 44552285C NANA duena, **Gipuzkoako Foru Aldundiko** diputatu nagusi den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Maite Garmendia Erauskin andrea, 72445479X NANA duena, **Altzagako** udaleko alkate den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Aritz Insausti Zeberio jauna, 72539285E NANA duena, **Aramako** udaleko alkate den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Martin Aramendi Arana jauna, 72436387A NANA duena, **Ataungo** udaleko alkate den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Leire Artola Ugalde andrea, 35779121E NANA duena, **Beasaingo** udaleko alkate den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Joseba Iztueta Dorronsoro jauna, 72488843L NANA duena, **Gabiriako** udaleko zinegotzi den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Jon Gorrotxategi Gorrotxategi jauna, 15970149F NANA duena, **Gaintzako** udaleko alkate den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Iñaki Alberdi Iparragirre jauna, 72456101Y NANA duena, **Idiazabalgo** udaleko alkate den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Iñaki Aizpuru Oiarbide jauna, 15916558Y NANA duena, **Itsasondoko** udaleko alkate den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Kepa Zubiarrain Erauskin jauna, 34096652A NANA duena, **Lazkaoko** udaleko alkate den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Iñaki Agirre Jauregi jauna, 72482224R NANA duena, **Legorretako** udaleko alkate den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Iñaki Ugalde Alustiza jauna, 72436603N NANA duena, **Mutiloako** udaleko alkate den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Jokin Garmendia Asurabarrena jauna, 72436908H NANA duena, **Olaberriako** udaleko alkate den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Adur Ezenarro Agirre jauna, 44142431A NANA duena, **Ordiziako** udaleko alkate den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Jon Enrique Galarza jauna, 72440052B NANA duena, **Ormaiztegiko** udaleko alkate den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Egoitz Apaolaza Goena jauna, 44163545A NANA duena, **Segura** udaleko zinegotzi den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Ioritz Berra Juaristi jauna, 72497283H NANA duena, **Zaldibiako** udaleko alkate den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Iker Zubeldia Katarain jauna, 72478431A NANA duena, **Zegamako** udaleko alkate den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Arantzazu Gereñu Barriola andrea, 72466210H NANA duena, **Zeraingo** udaleko alkate den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Mikel Arrizabalaga Arratibel jauna, 72466285R NANA duena, Alianza Industrial Get Goierri Basque Country Elkatearen (aurrerantzean, **Goierri Valley**) presidente den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Jon Gorrotxategi Beristain jauna, 44128713Q NANA duena, **Ampo S. Coop.**ko presidenteorde den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Nerea Elias Mugica andrea, 44163081E NANA duena, **Biziola Elkartearen** ordezkari den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Joxe Ramon Aramendi Mendizabal jauna, 15913919N NANA duena, Cáritas Diocesana de San Sebastián Caritaseko (aurrerantzean, **Caritas**) zuzendari den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Aitor Imaz Ganzarain jauna, 44157342X NANA duena, Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SAko (aurrerantzean, **CAF**) Produktu Lerro arduradun den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Agurtzane Allur Dorronsoro andrea, 72487749Y NANA duena, **Goienar S. Coop.**ko ordezkari den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Ion Aldanondo Albisu jauna, 34108860K NANA duena, Goierri Irrati Telebistako (aurrerantzean, **GITB**) zuzendari den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Carlos Ormazabal Urbizu jauna, 15974530H NANA duena, **Goierri Fundazioko** zuzendari orokorra den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Iker Galparsoro Lasa jauna, 34095080H NANA duena, Goierriko Ekimena SAko (aurrerantzean, **Goieki**) zuzendari orokorra den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Iñaki Gurrutxaga Cacho jauna, 44166992T NANA duena, **Goierriko Hitzako** zuzendaritzako kide den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Iñaki Elgarresta Jauregi jauna, 72450821Q NANA duena, Goierriko Landa Garapenerako **Goimen Elkarteko** presidente den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Aitor Altuna Oiarbide jauna, 72451523M NANA duena, **Goierriko Nekazal Kooperatibako** presidente den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Nicolas Osinalde Gurrutxaga jauna, 34094997G NANA duena, **Goitur SL**ko zuzendari den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Pedro Álvarez Moro jauna, 72473173N NANA duena, **Lortek S. Coop.**ko zuzendari orokorra den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Axier Lecuona Arrizabalaga jauna, 72463497L NANA duena, **Orkli S. Coop.**ko presidente den aldetik eta hura ordezkatzuz,

Erakundeak Hitzarmen honetan beren izendapen ofizialaren arabera izendatuko dira eta izendapena baterakoa denean eta horiek nominalki identifikatzea beharrezkoa ez denean, «aldeak» edo «gobernantza-sistemako kideak» modura aipatuko dira.

Aldeek, dokumentu honen bidez bata bestea behartzeko gaitasun juridikoa eta jardutekoa aitortzen diotelarik,

ADIERAZTEN DUTE:

Lehenengo. Goierriko gobernantzaren prozesua 2020. urteko irailean abiatu zen. Prozesu horren lehen urratsa eskualdeko udal-eragile, enpresa zein eragile komunitarioak entzutea izan zen, eskualdean egon zitezkeen kezkak identifikatzeko helburuarekin. Egungo gizarteak dituen erroinei erantzuteko asmoz, gobernantza-modu berrien beharra somatzen zen, eta modu berri horiei forma emateko helburua zuen prozesuak, hain zuzen ere. Alegia, erronka konplexuei izaera ezberdineko eragileen konexioen eta lankidetzaren bitartez erantzuteko beharra ikusi zen.

Bigarren. Burututako entzute-prozesu horretatik, eskualde-mailako hainbat erronka erauzi ziren, 2021ean Legorretan eskualdeko eragile ezberdinekin eginiko batzarrean lehenetsi zirenak. Lehenetsitako erronka horiek Energia, Landa Garapena eta Zaintza izan ziren, eta, zeharka hauei eragingo zieten beste gai batzuk ere identifikatu ziren, hala nola: mugikortasuna, aniztasuna, bi abiaduretako Goierri, herri txiki vs. herri handi eta eskualde-nortasuna.

Hiru erroinei aldi berean eustea baino, gradualki heltzea proposatu zen. Bide horretan, udal-ordezkariek dagoeneko martxan zuten energia-mahaia egonik, energiaren erronka hautatu zen abiapuntuko erronka gisa. Ondotik, landa-garapena eta zaintza lantzea aurreikusten zen.

Legorretan burutu zen batzar horretatik aurrera paraleloki bi prozesu garatu ziren: batetik, eskualdean lankidetzan oinarritutako gobernantza eraikitze prozesua; eta, bestetik, energiaren erronkari eskualde-mailan erantzuteko burututako prozesua.

Hirugarren. Gobernantza-prozesua eraikitze bideak fase ezberdinak izan zituen. Lehen fase batean udal-ordezkariekin burutu zen lanketa. Fase horretan honako erabakiak hartu ziren:

- a) **Gobernantza-sistema sarean eraikitzea oraingoz, inongo egitura juridiko berririk sortu gabe:** egitura juridiko bat martxan jartzea goizegi ikusten zen. Lehenago sarean funtzionatzen hasia erabaki zen, bertatik sortzen ziren ikasketak hurrengo fase baterako balio zezaten. Hala ere, sarean funtzionatuko duen egitura-sistema formalki eratzea ikusi zen, hitzarmen baten bidez. Hitzarmen hori sinatuko luketen erakundeak hemen agertzen diren kideak dira. Hitzarmen horrek kideen eskubide eta betebeharrak jasoko lituzke, eta baita organo bakoitzaren funtzioak zeintzuk izango liratekeen ere.

- b) Gobernantza berriaren antolamendu-egitura berria adostu eta kideak proposatzea:** gobernantza berriaren antolamendu orokorra eta eremu ezberdinak zeintzuk izango diren adostu zen. Era berean, gobernantza-eredu berriaren eremu ezberdinetako kide izango diren eragileen proposamen bat adostu zen. Horretarako honako irizpide hauek hartu ziren kontuan: erronken arteko oreka, eragile motaren arteko oreka (publiko, pribatu edo komunitarioa) eta sentsibiltate ezberdinen arteko oreka. Gobernantza-sistema berriaren parte diren eragileak orain artean burututako bide eta erronkekin lotutako eragileak dira, etorkizunean —beste erronka batzuk sortuz gero— bestelako eragileak izan ahalko luketelarik.
- c) Eskualdeko interesei eta interes orokorreari erantzun dion gobernantza-sistema izatea:** eskualde bezala egon daitezkeen erronka konplexuei erantzuteko ezinbestekoa izango da izaera ezberdina duten eragileen arteko elkarlan-eredu berriak eraikitzea. Premisa horrek adostasun bideak urratzera darama, ezberdinen arteko adostasunak. Ondorioz, gobernantza-eredu berria ez da gehiengoaren logiketan garatuko, adostasun-logiketan baizik.

Hala ere, gairen batek bozketa behar izatekotan, eta interes orokorra bermatzeko asmoz, udalek, erakunde publiko diren neurrian, izaera berezia izango dute, horretarako adostutako eta hitzarmen honen klausuletan jasotzen den formularen bidez.

Laugarren. Behin udalekin prozesua bukatuta, gobernantza-eredu berrian irudikatu ziren eragile batzuekin bilkurak burutu ziren, beren inplikazioa adosteko. Ondoren, 2023ko irailaren 26ean, Goierriko eskualdeko eragileekin bilkura burutu zen gobernantza-eredu berria aurkezteko eta ekarpenak jasotzeko. Batzar horretan, orokorrean, begi onez ikusi zen proposatzen zen gobernantza-eredua, zenbait zalantza eta ekarpen egon baziren ere.

Bosgarren. Gobernantza-ereduaren prozesua burutu zen une berean, energiaren erronkarekin lotutako prozesua burutu zen. Energia-erronkaren lanketa Mariana Mazzucato ekonomialariaren “Misioek gidatutako berrikuntza” proposamenean oinarritu zen. Misio bat definitzea proposatu zen, ortzi-muga izan zitekeena. Konkretuki, eta Mazzucatok dioenaren bidetik, ezaugarri hauek izan beharko lituzkete misioek:

- Inspiratzaileak izan beharko dute, motibagarriak.
- Espezifikoa (helburu argi batekin), neurgarriak eta denboran mugatuak.
- Anbizioz gabeko misioak ez dira motibagarriak, baina errealistak ez direnak ere atxikipena eragotzi dezakete. Beraz, anbiziadunak baina errealistak beharko dute.
- Sektore anitzak bildu beharko dituzte beregain, ikuspegi sistemikoa bereganatuz.
- Behetik gorakoak izan beharko dute, gizarteko eragile ezberdinekin partekatu eta batera sortutakoak.

Metodologia horren planteamenduak lan-logika berri bat dakar, gizarteak dituen erronkak ebazteko. Erronkei aurre egiteko, planteamendu, irtenbide eta estrategia berriak formulatzeko, ikuspegi irekia, dinamikoa eta lankidetzakoa erabiltzea eskatzen du, eta esplorazio-, esperimentazio- eta ikaskuntza-prozesuan erronkei lotutako erakunde publikoak, pribatuak, eragile komunitarioak zein ezagutza-eragileak partaide egin behar dira.

Behin misioak definituta, misio horietara heltzeko portfolioa sortzea izango da helburua, misio horrekin inplikaturako eragile ezberdinen kosorkuntzaren bidetik.

Horrez gain, misioetara bideratutako berrikuntzaren metodologiak ezartzen du diziiplina arteko berrikuntza, sektore artekoa eta eragile artekoa sustatu behar dituela. Horretarako, elkarrekin sortzeko, elkartzeko modu eta espazio berriak sortzea proposatzen du, hainbat sektore eta eragile biltzen dituzten helburuetan arreta jarritz.

Seigarren. Energia-erronkaren inguruko prozesuak honako fase hauek izan zituen:

1. **Entzutea:** misioaren definiziora iristeko, ikertu, hausnartu eta gakoak identifikatu beharko dira. Azken finean, eremua ulertu beharko da, eremu horretako eragileei entzun eta eremuaren inguruko esplorazioa (kuantitatiboa ere) egin beharko da, partekatutako misioaren definiziora iristeko. Horretarako, energiaren erronkarekin lotura duten eragileen mapatzea burutu zen, eta horiekin bakarkako elkarriketak burutu ziren.
2. **Misioa definitu:** elkarriketa horien ostean, informazio guztiaren sintesia garatu zen, esploraziotik erauzitako gakoetan oinarrituta elkarrekin sortutako misio baten erredakziora iristeko helburuarekin. Gako horiek eragile guztiak bildu zituen saioetan partekatu eta adostu ziren. Era berean, eragileen artean honako misioa adostera iritsi zen:

“2030erako Goierriko CO₂ isurketak %55 gutxitzea, tokiko gizarte-eragileek lideratutako energia trantsizio justua burutuz, eskualdeko ekonomiaren garapen jasangarria sustatuz eta bertako baliabideak lehenetsiz.”

3. **Ideien kosorkuntza:** behin misioa definituta, eskualdeko eragile ezberdinen artean misio horretara heltzeko ideiak sortzea izan zen hurrengo egitekoa. Fase honetatik 8 ideia multzo sortu ziren. 8 ideia multzo horietatik honako 3 ideiak garatu ziren: enpresetara mugikortasun jasangarria bultzatzeko ideia, eraikuntza eta auzoen birgaitzeko esperientzia-prototipoa, eta trantsizio energetikorako komunitateak sortu eta saretzea.

Zazpigarren. Aipaturako guztia kontuan izanda, Goierriko eskualdean gobernantza-eredu berri bati forma ematea egoki ikusi dute hitzarmen hau sinatzen duten aldeek eta prozesua indartzen jarraitzeko konpromisoa eta interesa adierazten dute. Horrek berekin dakar gobernantza-eredu berriaren hitzarmena garatzea, lankidetzazko izaera izango duen markoa eraikitzeko balioko duena.

Horrelako prozesu batek arnas luzeko bidea eskatzen duela aitortzen dute aldeek, konplexua den neurrian urratsez urrats definitzen joan beharko delarik. Beraz, hitzarmen honetan jasoko denak hasiera bat besterik ez du definitzen, jakitun izanik etorkizunean aldaketak eska ditzakela.

Aipatutako guztiagatik, aldeek Hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, honako klausula hauei jarraituz:

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen helburua da sinatzaileen arteko lankidetzaz abiatzea, Goierriko eskualdean izaera publiko-pribatu-komunitarioa izango duen *Goierri BarNETik* gobernantza-sistema eraikiz.

Honekin, izaera ezberdina duten eragile ezberdinen arteko harreman-eredu berri bat bilatzen da, gizarteko erronkei erantzuten lagunduko duena. Abiatzeko, *Goierri BarNETik* gobernantza-sistema honek energia, landa-garapena eta zaintzaren erronkei erantzungo die, baina etorkizunean bestelako erronka batzuk txertatu ahal izango dira eredu berri honetara.

Bigarrena.- Araubide juridikoa.

1. Hitzarmen hau Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeari (aurrerantzean, "40/2015 legea") lotutako hitzarmen administratibo bat da, bereziki 47-53 bitarteko artikuluetan (biak barne) jasotakoa.
2. Arestian aipatutako 40/2015 Legean, 47.2. artikuluan, aurreikusitako hitzarmen moten artean, honakoa herri administrazioen eta Zuzenbide Pribatuko beste subjektu batzuen artean sinatutako hitzarmen bat da, eta hura egikaritzaz ez da berau sinatzen duten Zuzenbide Pribatuko subjektuen alde eskumen administratiborik lagatzen.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartzen duen 3/1979ko Lege organikoari jarraiki, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeari jarraiki, eta Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluko hainbat xedapenei jarraiki, Hitzarmen hau sinatzen duten erakunde publikoek hemen jasotako gaiari loturiko eskumendun erakundeak dira, eta, beraz, ahalmen-duta daude hitzarmen hau sinatzera.

Hirugarrena.- Jarduerak.

Goierri BarNETik gobernantza-sistema berri honek honako funtzio orokorrak izango ditu:

- a) Goierriko eragile publiko-pribatu-komunitario ezberdinen artean lankidetzan eta harreman-eredu berriak sortzea.
- b) Gobernantza-eredu berrian parte hartzen duten eragile guztien jardura koordinatzen laguntzea.
- c) Goierriko eskualdeak dituen erronkak identifikatu eta horiei erantzuteko prozesuak martxan jartzea.
- d) Eskualdeko erronka konplexuei erantzuteko gizarte-berrikuntza aplikatzea.
- e) Eskualdean egon daitezkeen ildo edo politika ezberdinak identifikatu eta harremanetan jartzea.
- f) Izaera ezberdineko eragileen lankidetzaren bitartez eskualdearen beharrei erantzungo dieten ideia berritzaileak sortzea.
- g) Erakunde ezberdinekin esperimentaziorako aukerak identifikatu, elkarrekin diseinatu eta garatzea.
- h) Aldeen elkarrekin adostutako jarduerak garatzeko behar duten finantzazio gehigarria bilatu eta kudeatzea.
- i) Definitutako erronketan elkarrekin parte-hartzea autonomia erkidegoko, estatuko edo nazioarteko ordezkartzako eta lanerako foroetan, biltzarretan, azoketan eta abarretan.
- j) Sortutako ezagutza gizartean eta erakunde publikoetan zabaltzea, baita beste sare batzuetan garatutakoarekin konektatzea ere.
- k) Aldeen intereseak izan daitezkeen beste hainbat jardura burutzea.

Laugarrena.- Gobernantza-sistemaren baliabideak.

Goierri BarNETik gobernantza-sistema honen baliabideek jatorri hau izango dute:

- a) Aldeen aurrekontuen kargura jasotzen dituen diruzko ekarpenak.
- b) Gobernantza-sistemako kide ezberdinek espezietan egindako ekarpenak.
- c) Edozein enpresa edo erakunde publikotik jasotzen diren dirulaguntza, laguntza, babesletza eta dohaintzak.
- d) Bere jardueren ondorioz eskura daitezkeen diru-sarrerak, nahiz bere ondareen ondoriozko errendimenduak.
- e) Zuzenbidez baliozkoa den beste edozein.

Bosgarrena.- Ekarpen arruntak.

Goierri BarNETik gobernantza-sistemari egin beharreko ekarpen finantzarioak onartutako urteko aurrekontuetan ezarritako kopuruaren arabera izango dira. Aurrekontu horien arabera ekarpenak honakoak izango dira:

- Eskualdeko udalak: aurrekontuaren %50a. Udal bakoitzak bere biztanleria pisu proportzioaren arabera erantzungo dio aipatutako kopuruari.
- Enpresak: aurrekontuaren %25a, Goierriko enpresek egin beharreko ekarpena.
- Gipuzkoako Foru Aldundia: aurrekontuaren %12,5a.
- Bestelako diru-iturriak: aurrekontuaren %12,5a.

Aurrekontuak onartzerako orduan, eta ekarpenak definitzerakoan, ekarpen ekonomikoa egingo duten erakundeek beren adostasuna azaldu beharko dute erabaki horiek baliozkoak izan daitezen.

Eragile bakoitzak bere diru-ekarpenak Goiekiri egingo dizkio. Goieki izango da gobernantza-sistemaren koordinazio tekniko orokorraren lidergotza eramango duen erakundea, horretarako beharrezkoak diren kontratazioak burutuko dituelarik eta kontuak kudeatzeko ardura beregan hartuko duelarik. Kontratazioak Sektore Publikoaren kontratuak arautzen dituen Legea jarraituz burutuko dira.

Udalen ekarpena udalek urtero Goiekiri egiten dioten ekarpenaren barruan kokatuko da. Ekarpen hau egiteko udaletako organo eskudunek dagokion erabakia hartu beharko dute, legez ezarritako prozedura eta muga barruan.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekarpena aurrekontu-baliabideen arabera eta entitate horri legez aplikagarria zaion araudia jarraituz bideratuko da.

Seigarrena.- Jasangarritasun ekonomiko eta finantzarioa. Aparteko ekarpenak.

Goierri BarNETik gobernantza-sistema ikuspuntu ekonomiko eta finantzariotik iraunkorra izan dadin, aldeek diru-sarrerak eta finantzazioa eskuratzeko aurreikusitako bide eta baliabideak elkarrekin aztertuko dituzte. Aurrekontuan aldaketarik egiteko edo aparteko ekarpenik egiteko, aurreko xedapenean aipatu diren eta ekarpen finantzarioa egiten duten eragileek beren adostasuna azaldu beharko dute.

Eusko Jurlaritzako, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta udaletako ordezkarien kasuan, adostasuna organo eskudunak eman beharko du, legez ezarritako prozedura eta muga barruan.

Bestelako erakundeen kasuan, beren barne prozedura eta arauetara egongo dira lotuak.

Zazpigarrena.- Antolakuntza-eredua.

Goierri BarNETik gobernantza-sistema berria honako eremuetan antolatuko da:

- Ekosistema: eskualdeko eragileek osatzen duten multzoa, lehenetsitako erronkekin zerikusia duten eragileak bilduko dituen. Gune honek eskualdeko erronkak identifikatzen parte hartzen du, baita horiek lehenesten eta horiei erantzuteko proiektuak proposatu, diseinatu eta garatzen ere. Misioka, erronka edota misio bakoitzarekin lotutako ekosistemak eratuko dira.
- Erabakigune zabala edo batzar orokorra: gune honetan parte hartzen duten eragileak hitzarmen hau sinatzen duten eragileak izango dira. Eragile hauek konpromiso handiagoak hartzen dituzte aurreko guneen kideekin alderatuta. Hau izango da gobernantza-sistemaren erabakigune nagusia, eta horrek betebeharrak batzuk ere ekarriko ditu. Misioen lanketan ematen diren pausoen gaineko azken erabakiak hartuko dituen gunea da erabakigune zabala, eskualdearen ordezkariak partekatuen erakusgarri dena (eragile publikoek, pribatuak eta komunitarioek hartuko dute parte).
- Erabakigune operatiboa edo gobernu organoa: erabaki gune zabalaren lantalde operatiboa da, bulego teknikoaren laguntzarekin erabakigune zabalera gaiak landu eta misioen ikuspegi partekatuen ardura izango duena. Gune honetan, erabakigune zabalak edo batzar orokorrak hautatutako kideak hartuko dute parte. Udalen ordezkariak 5 kideetako izango da, hiru herri handiak, herri ertainen ordezkari bat eta herri txikien ordezkari batez osatua.

Tamainaren arabera herriak honakoak dira:

- *Herri handiak*: Beasain, Ordizia eta Lazkao.
- *Herri ertainak*: Ataun, Olaberria, Itsasondo, Ormaiztegi, Idiazabal, Segura, Zaldibia, Legorreta eta Zegama.
- *Herri txikiak*: Gaintza, Zerain, Mutiloa, Gabiria, Altxaga eta Arama.
- Bulego teknikoa: bulego teknikoak prozesu osoaren gainbegiraketa egin beharko du, gidaritza metodologikoa, eragileen koordinazioa, komunikazioa eta ebaluazioa. Misioen esparruan egiten diren jarduerak sustatu, bermatu eta horien jarraipena egiteaz arduratzen da.

Bulego teknikoaren lidergotza ardura Goiekik hartuko du, bere esku egongo delarik gobernantza-sistemaren koordinazio orokorra. Koordinazio orokorraren lidergotza Goiekiren esku egongo bada ere, bulego teknikoaren parte izango dira ere eskualdeko bestelako eragileak edo/eta kontratatutako aholkularitzak zerbitzuak, guztien arteko elkarlana izango delarik eremu honen oinarrian egongo dena. Goiekirekin batera bulego teknikoan parte hartuko duten bestelako eragileak zeintzuk izango diren erabakitzea erabakigune zabalaren eskumena izango da.

Zortzigarrena.- Funtzionamendua.

1. *Goierri BarNETik* gobernantza-sistemaren funtzionamendua eta erabakimen prozesua misioen metodologian oinarritutako prozesuak definitutako faseen baitan eraikiko da. Konkretuki, honako faseak aurreikusten dira aipatutako prozesuetan:
 - a) Erronken lehenestea: sortze eta erabakitze prozesua erronkaren identifikazioarekin abiatzen da. Goierriko eskualdeak izan dezakeen erronka definituta erronka horiei erantzuteko hurrengo faseak irekiko dira. Orain artean, eskualdean 3 erronka identifikatu dira -energia, zaintza eta landa-garapena-, baina etorkizunean erronka gehiago definitu daitezke.
 - b) Misioak edo helburuak definitzea: behin erronka definituta erronka horri erantzungo dion misio edo helburua definituko da. Misioak inspiragarria, neurgarria, denboran mugatua, sektore artekoa, anbizioduna baina errealista eta behetik gorakoa izan beharko du.
 - c) Prototipazioa: definitu den misio edo helburura heltzeko beharrezkoak izango diren ideia berritzaileen multzoa izango da. Ideia berritzaileak izaera ezberdina izango duten eragileen arteko kosorkuntza prozesuetan garatuko dira.
 - d) Finantzazioa eta inplementazioa: proiektuak garatzeko finantzazio-aukerak aztertu eta bilatzea izango da fase honen helburua. Behin finantzazioa lortuta, proiektua inplementatu eta ebaluatu egingo da.
2. Aipatutako faseen baitan, honakoak dira organo edo eremu bakoitzaren funtzioak:

2.1. Ekosistema:

- a) Eskualdeko erronken lanketan parte hartzea. Eskualdeko erronkak ekosistema osoaren parte-hartzearen bitartez identifikatu eta definituko dira.
- b) Misioa edo helburua definitzeko lanketa prozesuetan parte hartzea.
- c) Proiektu edota prototipo jakinen garapenean parte hartzea, eta horiek bultzatzea.
- d) Misio edo helburuarekin erlazionatutako proiektuen informazioa partekatzea.
- e) Prozesu eta misio edo helburuaren ebaluazioan parte hartzea.

2.2. Erabakigune zabala edo gobernantza-sistemako kideen batzar orokorra:

- a) Misio edo helburua definitzeko lanketa prozesuan parte hartzea.
- b) Misio edo helburuak onartzea, identifikatutako misioek eskualdeko erronkei erantzuten diotela bermatuz.
- c) Ekosisteman parte hartuko duten eragileak zeintzuk izango diren onartzea.
- d) Finantziatuko diren proiektuak zeintzuk izango diren erabakitzea, eta hauek finantziatzea.
- e) Urteko aurrekontua onartzea, eta finantzazio bideak erabakitzea. Hitzarmen honen 5. Xedapenean jasotakoari jarraiki, aurrekontuak onartzerako orduan, eta

ekarpenak definitzerakoan, ekarpen ekonomikoa egingo duten erakundeek beren adostasuna azaldu beharko dute erabaki horiek baliozkoak izan daitezen.

- f) Prozesuak ahalbidetzea, baliabideak erraztuz, informazioa partekatuz edo estrategiak lerratuz.
- g) Misioen lanketa-prozesuaren erabakigune orokorra izatea, prozesua abiatu, eten edo/eta bulego teknikoaren gaineko ebaluazioa egiteko.
- h) Bulego teknikoan parte hartuko duten kideen izendatzea burutzea.
- i) Erabakigune zabalera kide berriak sartzea komenigarri ikusiko balitz, horiek onartzea.
- j) Erabakigune operatiboan edo gobernu organoan egon beharko luketen kideak izendatzea.
- k) Organo honen izaera gorenarekin erlazionatuta egon daitekeen bestelako edozein funtzio garatzea.

2.3. Erabakigune operatiboa edo gobernantza-sistemako kideen gobernu organoa:

- a) Bulego teknikoa eta erabakigune zabalaren arteko zubi lana egitea.
- b) Erabakigune zabalera joango diren gaiak landu eta proposamena egitea.
- c) Misioen arteko loturak aztertzea: misio- zein proiektu-mailakoak.
- d) Erabakigune zabalera finantziatuko diren proiektuen proposamena egitea.
- e) Finantzazio aukerak aztertzea.
- f) Gobernantza-marko honen barruan garatzen diren proiektuen ebaluazio partekatua burutzea, ikasketak ateratzeko asmoz, eta horiek erabakigune zabalarekin partekatzea.
- g) Beste eskualde, proiektu zein eragilerekin loturak ahalbidetzea.
- h) Hitzarmen honen jarraipena egitea, hitzarmen honetan jasotzen den hamabigarren klausulan jasotakoari jarraiki.
- i) Erabakigune zabalak aitortu edo lagatako beste edozein funtzio burutzea.

2.4. Bulego teknikoa:

- a) Misioen koordinazio teknikoa burutzea, erabakigune operatibo eta zabalak hartutako erabakiei segida emanez.
- b) Ekosistema osoarekin dauden elkargune eta kosorkuntza guneak eta saioak koordinatzea: saioen antolakuntza, entzute-prozesuak aktibatu, diagnostiko zein azterketak, etab.
- c) Misioetan garatzen diren lantalde eta proiektuen garapena bermatu eta jarraipena egitea.
- d) Misioen barne- eta kanpo-komunikazioa diseinatu eta inplementatzea.
- e) Misioekin erlazionatuta egon daitezkeen beste ekimenak identifikatzea.
- f) Aldiroko jarraipen-txostenak burutzea.
- g) Erabakigune zabalak aitortu edo lagatako beste edozein funtzio garatzea.

Bederatzigarrena.- Erabakimena.

Hitzarmen honen adierazpenetan jaso bezala, *Goierri BarNETik* gobernantza-sistema adostasunak lortzeko bokazioan oinarrituko da. Izan ere, erronka konplexuei erantzuteko, ezinbestekoa izango da izaera ezberdina duten eragileen arteko elkarlan-eredu berriak eraikitzea. Zentzu horretan, gobernantza-sistema berri honek prozesuari emango dio garrantzia, eta prozesu horretan ezberdinen arteko adostasunak lortzeari.

Beraz, *Goierri BarNETik* gobernantza-sistemak ez du bere izaera gehiengoen logiketan irudikatzen, adostasun-logiketan baizik. Horregatik, erabakiguneetako kideek adostasunak bilatzeko betebeharra izango dute. Era berean, adostasunak posible egiteko *Goierri BarNETik* gobernantza-sistemak dagozkion metodologia eta prozedurak adostu beharko ditu eta praktikan jarri.

Dagozkion prozedurak beteta, erabateko adostasuna posible izango ez balitz, erabakiak gehiengo osoz hartuko dira. Hala ere, kasu horietan, honako baldintzak bete beharko ditu erabakiak:

- Interes orokorra bermatzeko helburuarekin, erabakiak onartuak izan daitezen, udal-ordezkarien 3/5ak ados egon beharko dute. Gainera, 3/5en horietatik, 1/5a udal ertain edo txikiak beharko dute izan. Modu horretara interes orokorra bermatuko da, baita udal-tamaina eta -sentsibilitatearen arteko oreka ere.
- Era berean, lankidetzazko elkarlana gertatzen dela bermatzeko, erabakiak onartuak izan daitezen honako baldintzak bete beharko dituzte:

1. Sektore bakoitzeko kideen 3/5ak gutxienez erabakiarekin ados egon beharko dute. Sektoreak honakoak izango dira:

- Enpresa-sektorea: CAF, Orkli, Ampo, Goierri Valleyk izendatutako bi ordezkarik, Lortek eta Goxara.
- Sektore komunitarioa: Goiener, Biziola, Goierriko Nekazal Kooperatiba, Caritas, GiTB eta Goierriko Hitza.
- Udalaz bestelako eragile publikoak: Goieki, Goimen, Goitur, Goierri Fundazioa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jurlaritzak.

Gerta liteke, hitzarmen honek ezarritako prozeduren bitartez, etorkizunean bestelako eragile bat gobernantza honetara gehitzea. Kasu horretan, zein sektorean kokatuko den adostuko da.

2. Sektoreren batean ezarritako gutxieneko 3/5aren baldintza ez balitz beteko, baina sektore guztiak eta udalak batuta erabakiak 3/5eko adostasuna balu, erabakia baliozkoa izango da, beti ere gutxienez sektore horretako bi ordezkarik aldeko jarrera agertuko balute.

Erabakiak hartzeko % 50eko gutxieneko *quoruma* beharrezkoa izango da.

Hamargarrena.- Fede ona eta informatzeko betebeharra.

1. Aldeek fede onez kolaboratzeko konpromisoa hartzen dute. Bereziki, jarrera irmoa hartzen dute *Goierri BarNETik* gobernantza-sistema berria bultzatzeko eta sustatzeko.
2. Modu berean, aldeek Hitzarmen honetan eragina izan dezakeen edozein alderdiren inguruan elkarri informatzeko konpromisoa hartzen dute, eta bereziki *Goierri BarNETik* gobernantza-sistemaren zereginak modu egokian betetzean eragina izan dezaketen horietan.

Hamaikagarrena.- Indarraldia.

Hitzarmen hau sinatzen den unetik 2026ko abenduaren 31ra bitartean egongo da indarrean. Hitzarmena luzatzea erabakitzen bada, gehienera ere lau urtez gehiago luzatu ahal izango da.

Hitzarmena izenpetzen duten aldeek edozein unetan utzi dezakete bertan behera epe hori amaitu aurretik *Goierri BarNETik* gobernantza-sistema, barne antolamenduan eta aldeek adostutako sarrera-irteera prozedura operatiboaren irizpideak jarraituz; kasu horretan, idatziz eta 2 hilabeteko aurreikuspenarekin egin beharko du.

Aldeetako batek hitzarmena utziko balu, uzte-data aurretik konprometitutako gastuen erantzule ere izango da, beti ere dagokion parte eta proportzioan. Uzte-dataren ondoren konprometitutako gastuei dagokionez, hitzarmena utzi duen aldea ez da erantzule izango. Gastu horiek definitu eta adosteko, Jarraipen Batzordearen eta hitzarmena uzten duen aldearen arteko batzorde mixtoa eratuko da.

Aldeetako batek hitzarmena uztearen ondorioz aurrekontuetan sor daitezkeen doikuntza erabakiak erabakigune zabalak hartuko ditu, beti ere bosgarren klausulan jasotakoari jarraiki.

Aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hitzarmena luzatzea edo hitzarmena amaitzea.

Hamabigarrena.- Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea.

Hitzarmen honetako 8.2.3 klausulari jarraiki, erabakigune operatibo gunea izango da hitzarmenaren jarraipena egingo duena. Akordioak botoen gehiengoarekin hartuko dira, eta beti ere gutxienez sektore publiko, pribatu eta komunitarioko ordezkariaren baten aldeko botoa beharko dute. Jarraipen Batzorde honen akordioak aktan jasoko dira. Nolanahi ere, Jarraipen Batzordea, akordio honetan xedatutakoak ez ezik, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. Artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako funtzionamendu arauak ere arautuko dute.

Hitzarmenaren jarraipen batzordeak, besteak beste, honako egiteko hauek izango ditu:

- Hitzarmenean erabakitakoaren kudeaketa, jarraipena, zaintza eta kontrola.
- Hitzarmenetik eratorritako interpretazio eta betetze arazoak konpontzea.
- Egokitze jotzen dituen hobekuntzak eta aldaketak formalizatzea proposatzea.
- Hitzarmenaren indarraldia amaitzean, adostutako jarduerak eta justifikazio dokumentazioa egiaztatzeke dagokion akta egitea.

Hamahirugarrena.- Aldeek beregain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzetik eratorritako ondorioak.

Hitzarmenaren sinatzaile batek beregain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea hitzarmenetik kanpo uzteko arrazoia izan daiteke, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoaren arabera.

Hitzarmena sinatu duten aldeetako edozeinek Jarraipen Batzordeari jakinarazi ahal izango dio egoera. Jarraipen Batzordeak, hala ikusiz gero, errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio bete ez duen aldeari, epe jakin batean bete ez direla uste diren betebeharrak edo konpromisoak bete ditzan.

Errekerimenduan adierazitako epea igaro ondoren, salatu den ez-betetzeak jarraitzen badu, hitzarmena bete ez duen aldea kanpo uzteko arrazoia dagoela jakinarazi ahal izango du.

Hamalagarrena.- Hitzarmena azkentzeko eta suntsiarazteko arrazoiak.

1. Hitzarmen hau azkendu egingo da bere xedeko jarduerak betetzen direlako edo suntsiarazteko arrazoia dagoelako.

Hauek dira suntsiarazteko arrazoiak:

- a) Hitzarmenaren indarraldia igarotzea, luzatzea erabaki gabe.
 - b) Sinatzaile guztien gehiengo zabala.
 - c) Hitzarmena nulua dela deklaritzen duen erabaki judizialagatik.
 - d) Aurrekoez bestelako edozein arrazoi, hitzarmenean edo beste lege batzuetan aurreikusita badago.
2. Hitzarmena bete eta/edo suntsiarazi ondoren, likidazioa egingo da, alde bakoitzaren betebeharrak eta konpromisoak bete diren zehazteko.

Hamabosgarrena.- Jabego intelektual.

Goierri BarNETik gobernantza-sistemaren baitan aldeek sortuko duten ezagutzak jabego partekatua izango du, eta lankidetzak dirauen bitartean garatutako ezagutza gobernantza-sistemako kide guztiena izango da. Aldeek ezagutza hori erabiltzen dutenean, partekatzen dutenean edo modu ezberdinetan hedatzen dutenean, *Goierri BarNETik* gobernantza-sistemari erreferentzia egin beharko diote (Creative Commons lizentziak ezartzen dituen irizpideen arabera - Attribution 4.0 International (CC BY 4.0)).

Hamaseigarrena.- Konfidentzialtasuna.

Aldeen partetik, beharrezko neurriak hartuko dira informazio instituzionalaren konfidentzialtasuna babesteko, pertsona fisikoen babesari buruzko araudia, datu pertsonalen tratamendua eta datuon zirkulazio librea arautzen dituen Europako Parlamentuaren (EB) 2016/679 Araudiak eta 2016ko apirileko 27ko Europako Kontseiluaren Araudiak eta Datu Pertsonalak eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak agintzen duenaren arabera.

Bestalde,

1. Aldeek tratamendu konfidentziala emango diote *Goierri BarNETik* gobernantza-sistemaren parte hartzearen ondorioz eskuratzen duten informazio, dokumentazio edo ezagutzari, betiere, helarazi edo baterako erabilgarri ipini duen kideak hala kalifikatu baldin badu.
2. Konfidentzial modura kalifikatutako informazio, dokumentazio edo ezagutza hori ez da erabiliko Hitzarmen honen xedea erdiesteko beharrezkoa denetik harago.
3. Aldeek eskuratu ahal duten informazio oro beharrezkoa den arduraz gorde beharko da. Aldeek helarazitako informazioa eskuratzea baimenduko zaie soilik hura erabiltzearen ondoriozko xedea lortzeko haren berri izatea behar duten langileei, informazio hori eskuratu duenari Hitzarmen honen arabera konfidentzialtasunari dagokionez baitaratutako konpromisoak jakinaraziz.
4. Hitzarmen honen arabera aldeek informazioa komunikatzeak ez du inolako eskubiderik sortuko informazioaren hartzaileari jabetza industrial, intelektual edo *know-how* erako eskubide babestuen inguruan.
5. Klausula honetan ezartzen den konfidentzialtasunezko konpromisoa hitzarmen honen indarraldiaren arabera izango da.

Hamazazpigarrena.- Komunikazioa eta irudia.

Aldeen artean hitzartutako edozein proiekturen berri ematen denean, aldeen arteko elkarlanaren edota autoretzaren aitortza egingo da, eta komunikazioa nola egin aldeek adostua izango da *Goierri BarNETik* gobernantza-sistemaren erabakigune zabalean.

Hemezortzigarrena.- Atxikipenak.

1. Hitzarmen honetara atxiki eta *Goierri BarNETik* gobernantza-sisteman sartu ahalko dira sektore publikoko, pribatuko edo komunitarioko bestelako eragile batzuk, beti ere erabakigune zabalak aho batez hala onartzen duenean.
2. Ildo berean, *Goierri BarNETik* gobernantza-sistemako kideak sistema eta hitzarmen honetatik bereizi ahal izango dira, eta horretarako prozedura definitu eta adostu beharko da.

Adostasun-froga modura, aldeek hitzarmen hau sinatu dute (aldeko bana) eta ondorio bakarrarekin, goiburuan adierazitako tokian eta datan.

Eider Mendoza Larrañaga andrea
Gipuzkoako Foru Aldundia

Maite Garmendia Erauskin andrea
Altzagako udala

Aritz Insausti Zeberio jauna
Aramako udala

Martin Aramendi Arana jauna
Ataungo udala

Leire Artola Ugalde andrea
Beasaingo udala

Joseba Iztueta Dorronsoro jauna
Gabiriako udala

Jon Gorrotxategi Gorrotxategi jauna
Gaintzako udala

Iñaki Alberdi Iparragirre jauna
Idiazabalgo udala

Iñaki Aizpuru Oiarbide jauna
Itsasondoko udala

Kepa Zubiarraín Erauskin jauna
Lazkaoko udala

Iñaki Agirre Jauregi jauna
Legorretako udala

Iñaki Ugalde Alustiza jauna
Mutiloako udala

Jokin Garmendia Asurabarrena jauna
Olaberriako udala

Adur Ezenarro Agirre jauna
Ordiziako udala

Jon Enrique Galarza jauna
Ormaiztegiko udala

Egoitz Apaolaza Goena jauna
Segurako udala

Ioritz Berra Juaresti jauna
Zaldibiako udala

Iker Zubeldia Katarain jauna
Zegamako udala

Arantzazu Gereñu Barriola andrea
Zeraingo udala

Mikel Arrizabalaga Arratibel jauna
Goierri Valley

Jon Gorrotxategi Beristain jauna
Ampo S.Coop.

Nerea Elias Mugica andrea
Biziola Elkarte

Joxe Ramon Aramendi Mendizabal jauna
Caritas

Aitor Imaz Ganzarain jauna
CAF

Agurtzane Allur Dorronsoro andrea
Goienar S. Coop.

Ion Aldanondo Albisu jauna
GITB

Carlos Ormazabal Urbizu jauna
Goierri Fundazioa

Iker Galparsoro Lasa jauna
Goieki

Iñaki Gurrutxaga Cacho jauna
Goierriko Hitza

Iñaki Elgarresta Jauregi jauna
Goimen Elkartea

Aitor Altuna Oiarbide jauna
Goierriko Nekazal Kooperatiba

Nicolas Osinalde Gurrutxaga jauna
Goitur SL

Pedro Álvarez Moro jauna
Lortek S. Coop.

Axier Lekuona Arrizabalaga jauna
Orkli S. Coop.